

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

2015ean 1.010 salaketa jarri ziren genero-indarkeriagatik, aurreko urtean baino % 5 gutxiago

Salatzaileen artetik, 69 adingabeak ziren

Astelehena, 2016.eko uztailak 4

2015ean 1.010 salaketa erregistratu ziren guztira emakumeen aurkako indarkeriagatik, hau da, % 5 jaitsi da 2014arekin alderatuz; urte horretan 1.060 izan ziren, erakunde arteko akordioaren jarraipen-batzordeak berriki onartutako urteko txostenetik emakumeen aurkako indarkeriaren artatzean eta prebentzioan koordinazio eraginkorra egin ahal izateko.



Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari buruzko jarraipen-batzordeak egindako bileraren irudi bat.

Adin-tarteari erreparatuz, biktima gehienak (% 16,33) 35 eta 39 arteko tartean daude eta, kasu guztiak aintzat hartuta, 69, 17 urtetik beherakoak dira. Gehienek, % 63, indarkeria fisikoa eta psikikoa pairatu zuten ezkontide, lagun edo bikotekidearen aldetik (kasuen % 51), edo bikote ohiaren aldetik (% 34). Sexu-indarkeria kopuru guztiaren % 6,9 izan da (69 salaketa). Geografia-esparruari begiratuta, berriz, salaketen % 67 Iruñean eta Iruñerrian bizi diren emakumeek jarri dituzte, eta jaioterriari dagokionez, % 62,5 espainiarrak dira.

Biktimak diren emakumeak artatzea

Txostenak jasotzen duenez, 112 emakume eta 138 adingabe artatu dira hiru harrera-tokietan: 97 emakume eta 102 adingabe Larrialdi Zentroan; 8 emakume eta 21 adingabe harrera-etxeetan; eta 7 emakume eta 15 adingabe egoitza-etxebizitzetan. Larrialdi Zentroan artatutako en profila honako hau da: 31 eta 45 urte arteko emakumea, atzerriarra, lehen mailako ikasketekin eta langabezia.

Etxebizitza eskuratzeko aukerari dagokionez, 2015ean, genero-indarkeriaren biktimak izandako emakumeentzat 65 etxebizitza esleitu ziren errentamenduan, 2014an baino 11 gehiago. Gainera, 605 emakumek lan-kontratu bat lortu zuten, hau da, % 47,43 igo da aurreko urtearekin alderatuz.